

2. aretoa.

'Black & White', 'Casbah', 'Oil & Sugar' eta eskulturak.

Artista: Kader Attia.

Komisarioa: Régis Durand.

Data: uztailaren 4tik irailaren 28ra.

---

© Régis Durand

---



Foto: Diario de Noticias de Navarra (Iban Aguinaga).

Kader Attia Dugnyn, Pariseko aldirietan, jaio zen 1970ean. Pariseko dekorazio-Arteen Goi-Eskolan eta Bartzelonako Arte Ederretako Eskolan ikasi eta gero, bidai luze bat hasi zuen Afrikan zehar eta baita egun oraindik dirauen herrialde ezberdinen zeharretako erresidentzia- eta erakusketa-saila luzea. Bidaiatzen ez duenean Parisen bizi da.

Bere lanak euskarri eta material ugarikoak dira: argazkiak, bideoa, marrazkiak, pintura, material ezberdinak. *Instalakuntza* edo "eskultura zentzu zabalenean" kategorian koka ditzakegu. Orokorrean, pieza bakarrak dira, leku zehatz batentzako eginak, nahiz eta leku horrengatik ezinbestean baldintzaturik ez egon. Erakusketa bakoitza plastika-proposamen ezberdinak uztartzen dituen konposizio antzekoa da eta harreman dinamikoa hasteko eta espazio- eta denbora-esperientzia izateko gonbidapena luzatzen dio ikusleari.

Kader Attia bere denborako artista da, ezbairik gabe, lehenik eta behin jorratzen dituen gaiengatik: erlijioa, globalizazioa, bestearekiko harremana, arkitektura, artistaren konpromisoaren gaia, etab. Halere, gaiak ez dira orokorrean edo teorikoki

tratitzen, artista kezkatzen duten gaiak dira. Berak, arrapostuak baino, galderak planteatzen ditu gaien inguruan, bere esperientziaren menpe jarriko dituelarik. Bere burua erdikoaren artistatzat jotzen du, kontrako lurraldeak banandu eta, era berean, batu egiten duen tarte (askotan estu) horretakoa.

Aipatu lurraldeek geografiko edo kulturalak izan daitezke. Bere lehenengo lanetako bat, *Lurreratze-pista* (2000), trabesti aljeriarren erretratu-diaporamak dira: beren herrialdeko ostrazismotik alde egin eta gero beren burua Pariseko prostituzio eta marjinalitatean ikusten dute, berrirori. Frantzia jaioa eta guraso aljeriarrekin, bere kultura bikoitza artista-lanaren motore bilakatu du Kader Attiak, gauzen erlatibotasunaren eta bestearenganako beharrezko errespetuaren gaineko kontzientzia eman dion heinean. Honela, lan bakoitza fisikoki eta intelektualki mugitzeko gonbidapena da, ikuslea eta lanaren artean aproposena den distantzia bilatzekoa. Hortaz, ikusleak umorea senti dezake baina baita edukien karga kritikoa ere. *Holy Land* bezalako lana, Kanariar irletan aurkeztua 2006ean, atzerrira joandako jendeen mugimenduen propioak diren itxaropen eta dramen inguruko iruzkina da.

Huarterako sortutako *Black & White-n*, *Ghost-en* (2007) erabilitako forma etzanak berreskuratzen ditu: hauek otoitzean dagoen jendea irudikatzen dute. Baina bigarrenean aluminiozko papera erabili bazuen ere otoitzean dauden emakumezkoak irudikatzen, *Black & White-n* olio garraiatzeko bidoiak erabiltzen dira eta honela, banaezina den arazo-multzoaren erdian kokatzen gaitu: energia-baliabide, erlijioa eta gatazka geopolitikoak uztarturik. *Oil & Sugar* bideoak gai guzti hauen tratamendu plastikoa eskaintzen du, erabat ezberdina. Baliabideen xumetasunak ez dio apurrik kentzen gertatutakoaren drama-indarrari.

*Casbah-k*, Huarterako sortua ere, mundu osoan zehar, baita gure mendebaldeko hiri handien aldirietan ere ikus daitezkeen etxola, etxebizitza xume eta txabolen txoribegizko perspektiba eskaintzen du. Ikuslea bertatik paseatzeko eta bizitza eta gizarte harreman aberatsetaz beteriko espazio horiengan proiektatzeko gonbitea jasotzen du.

Azkenik, mahai gainean jarritako plastikozko poltsak barnean izan dituzten produktuen aztarnak kontserbatzen dituzte, miraria dirudiena. Fintasan handiko lan honetarako bere tailerretik gertu ikusten den eguneroko fenomenoan oinarritu zen artista: larrialdiko laguntzaren barnean oinarritzko jakiak jasotzen dituztenek utziriko plastikozko poltsak. Gauzen pisuaz, eta mailakako desagertzeaz ere, hitz egiten digu. Eta Kader Attiak berak gustuko duen Lao Tseuren esana gogorarazten du ere: "Gizonak gauzak sortzen ditu baina hutsak ematen die zentzua". Hutsa/betetasuna, memoria/ahantzura, globala/partikularra: osagarri bezain antinomiakoak diren kontzeptuak, Kader Attiaren lanaren oinarri.